

ORDINALEN ETA BANATZAILEEN IDAZKERA (*)

Ordinalak adierazteko orduan euskal literaturan eta idazleen artean erabilera eta ohitura anitz izan direnez, batasuna egiteko Euskaltzaindiak beti puntu bat jartzea gomendatzen du ordinala adierazteko. Alegia, *garren* esango litzatekeen tokian puntua jarri behar da sistematikoki, inolako bereizketarik egin gabe erromatar eta beste sistemetako zenbakien artean. Horrenbestez, zenbakien ondoren puntua erabiliko da eta *garren* zenbakiak letraz idazten direneko bakarrik utziko da. Ordinala adierazteko marka horri artikulua eta kasu marka gaineratuko zaizkio, hala beharko balitz, edozein sintagmarekin gertatzen den bezala:

XX. mendea

hogeigarren mendea

10. mendea

hamargarren mendea

10. lasterkaria

2. etxea

3.ak esan du

Hau da 4.a eta beste hori 5.a

XIX. mendean ez zen halako buruhausterik izan, baina XX.ean, ordea, bai.

III. kapitulua polita da. Aldiz, IV.a ez zaio hain ongi atera.

XVII., XVIII. eta XIX. mendeetan

XVII, XVIII eta XIX. mendeetan

Retegi II.a

Tolosa III.arenkin

Juan Karlos I.ak esan duenez

e.a.

Irakurtzeko orduan “hogeigarren mendea”, “hamargarren mendea”, e.a. irakurriko dira. Azkeneo adibideak, berriz, honela: “hamazazpigarren, hemezortzigarren eta hemeretzigarren mendeetan”, “hamazazpi, hemezortzi eta hemeretzigarren mendeetan”, “Juan Karlos lehenak esan duenez”, e.a.

Zenbait kasutan, hala ere, ordinal horiek ez dira beti benetako ordinal gisa erabiltzen eta ahoskatzeko orduan ez da “garren” erabiltzen:

Matematika II.

Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III.

Alfazenbakizko aposizioetan ez da beharrezkoa puntua erabiltzea:

Seat 850 (Seat zortzi ehun eta berrogeita hamar).

Loiola 93 (Loiola laurogeita hamahiru).

N I errepidea.

(*) *Oharra:* Arau honek lehendik harturiko erabakia zehazten/aldatzen du. Ikus *Euskera* XVI, 1971, 150-153. orr.

Nola ematen dira ordinalak letra bidez? Ordinalen letra bidezko idazkeran arazoak sortzen dituen bakarra 5.aren ordaina da. Literatura tradizioan erabiltzen diren formak *bostgarren* (edo *bortzgarren*) eta *bosgarren* (edo *borzgarren*) dira. *Boskarren* eta gainerako *-k-* dunak ez dira autore zaharretan ia agertzen: forma *-k-* dunak (*boskarren* eta *bostkarren*) soilik erabiltzen dituen bakarra M. Zabala da, eta horrelako formak erabiltzen dituzten beste hirurek —Capanaga, An̄ibarro eta Iztueta— aldaeragundak ere badarabiltzate. Gero, XIX. mendearen bukaeraz gero gehiago zabaldu zen *boskarren*, baina Hegoaldean soilik eta idazle garbizaleen artean bakarrik. Beraz, badirudi euskara baturako egokiagoak direla *-g-* aldaerak, eta horien artean batasunean kontsonante multzoak murrizteko hartu den erabateko jokabidea (*hiztegi* eta ez *hitztegi* e.a.) kontuan harturik badirudi forma bakuna dela gomendatzekoa. Arrazoi bertsuakatik badirudi *bosna* (*borzna*) eta ez *bstna* dela gomendatu behar den forma.

Bestalde, 21., 41. eta kidekoiei dagokienez, *batgarren* grafia erabatekoa da, eta salbuespen bakarra M. Zabala da, *ogeta-batkarren* erabiltzen duena. *Batgarren* gehienbat aurreko osagaitik bereizirik agertzen da tradizioan (*hogeita batgarren*, *zenbatgarren*, e.a.), eta hori da hain zuzen numeralentzat gomendatu zen idazkerari gehien egokitzen zaion aukera.

Hortaz, hau da ordinalentzat Euskaltzaindiak euskara baturako erabakitzen duen idazkera:

Bigarren, *hirugarren*, *laugarren*, *bosgarren* (*borzgarren*), *seigarren*, *zazpigarren*, *zortzigarren*, *bederatzigarren*, *hamargarren*, *hamaikagarren* ..., *hamabosgarren* (*hamaborzgarren*) ..., *hogeigarren*, *hogeita batgarren*, *hogeita bigarren* ..., *hogeita hamargarren* ..., *berrogeita batgarren*, *ehungarren*, *milagarren*Eta galderetan *zenbatgarren*.

Saileko lehen kideari buruz, erabiltzen diren formek (*lehen*, *aurren*, eta *lehenengo*, *lehenbiziko*, *lehendabiziko* e.a.) ez dute ortografi arazorik, eta oraingoz, ez du Euskaltzaindiak horietako batere hobesten.

Orobat, eta banatzaileei dagokienez, *bana* (eta, beraz, *hogeita bana*), *bosna* (*borzna*), *hamabosna* (*hamaborzna*), *ehuna*, *mila bana*, idazkera proposatzen du Euskaltzaindiak. Halaber, galderetan *zenbana* erabiliko da. Jakina denez, Iparraldeko tradizioan, zenbakia bokalez bukatzen denean *-na* gabe *-ra* erabiltzen da: *bira* (baina *hiruna*, *launa*), *seira*, *zazpira*, *zortzira*, *bederatzira*, e.a. Euskaltzaindiak ez du erabilera hau gaitzesten.

Laburbilduz, hortaz, hauxe da Euskaltzaindiaren erabakia:

- 1) Ordinaletan “garren” ahoskatzen den bakoitzean puntua jar bedi haren ordainean: *Atano X.arekin, XX. mendean, 12. mendean*.
- 2) Oso-osorik letraz idazteko orduan arazoak sor ditzaketen ordinalak honela egiten dute: *hogeita batgarren*, *hirurogeita batgarren*. Hala ere, *bosgarren*, *hogeita bosgarren*, *hirurogeita hamabosgarren*, e.a. idatziko da.
- 3) Distributiboak, *-na* baliatuz osatzen direnean, honela idazten dira: *bana*, *bosna*, *ehuna*, *mila bana*, *zenbana*, e.a. Hauen aldaerak ere (*borzna*) berdín idatziko dira.

(Euskaltzaindiak, Oiartzunen, 1994ko abenduaren 29an onartua)